

IRRAZIONALISMOAREN INGURUAN

Joxe AZURMENDI

Decía Heráclito, según dicen, que el fuego está dotado de razón. Que es, incluso, razón y la razón fuego. Pero eso era antes.

La filosofía y euskolastika convenientes a nuestros días parecen más bien haberla convertido en agua fría, que llaman realismo. Fuego es hoy, sin más, irracionalidad.

La ira y los hijos de la ira, familia numerosa. Pero también eso resulta bastante viejo. Hace muchos años que Rikardo Arregi escribió un pequeño ensayo, AMORRAZIOA, acusando esa concepción "burguesa" de la racionalidad domesticada, que desde los años cincuenta se ha negado y sigue negándose (ahora con nuevos aliados) a reconocer actitudes y métodos de lucha menos convencionales. Ensayo que evidentemente nadie recuerda. Porque en este País, donde unos pocos listos no se cansan de acusarnos a todo el resto de escasa memoria histórica, la memoria cultural, incluso de aquellos pocos listos, parece todavía más escasa.



“Irrazionalismo kritikoa”

● Horrelaxe deituko dugu, nolabait egiteko. Izena Lukácsen liburuagatik ematen diot, **El asalto a la razón**, haren interpretazioekin arras gustora ez nagoelako. Eta “irrazionalismo” hitz itsusiak, irain gisa aurpegiratu ohi digutenak, ez duelako merezi eztabaida bat. Onartu egingo dugu eta goazen mamira.

Arrazoimenak ongi merezita dauka bere ospea eta izen ona. Emantzi-

pazio borroka luze gogorra eraman du, XVIII. eta XIX. mendeetan, gizadia Erdi Aroko ordenu zahar itxitik askatzeko. Argia biztu oskurantismoaren ilunbetan zegoen gizadi tristeari. Harrez gero han hasiarazten dugu Modernia eta gizon moderno ilustratuak han ikusi nahi izaten ditu bere sustriak.

Bai, oso arrazionala da gizon modernoa: zientzietan eta progresoan sinesten du, demokrata beneragarria da,

berbaje uste du bere burua, badauka giza eskubideen taula ofizial bat, teknika adoratzen du, bere negozioak eta negoziaketak maite ditu edozeren gainetik, eta horietarako ordenu xuxena gainen-gainenetik. Guziz arrazoizko mundu bat.

Euskal Herrian ere, ondo kostata, baina gaur-egun denok uste dugu oso modernoak garela. Oso arrazionalak beraz. Zein baino zein arrazionalagoak

derrigor. Eta beren "karlista konplejoa" inola disimulatu ezin dutenak hain zuzen arrazional amorratuena.

Arrazoikotasunaren hemengo profeta askori nabarmenagotxo ageri baitzaio, bere arrazoikotasun alarde guziak funtsean "karlista konplejo" samin baten reflejo besterik ez direla. Orduan gaixoak, larriaren larriz, arrazoizko eta liberal agertzeko besterik egiten ez daki, kontrario denak irrazionaltzat hartzen baino, eta irrazional denak Santa Kruz Apaizarekin berdintzen, edo XIX. mendeko beste edozein tipo xebrerekin. Besteak ez dakit, baina bera bai, inondik ere bera hantxe dabilelako oraindik, XIX. mendean eta XIX. mendeko fronteetan, jo ta ke bere gerra partikularrak ausarko irabazten.

● Arrazoimena, ordea, su kiskalgarria zen. Kritiko zen eta protestalaria. Gerra predikatzen zuen, ez ur bedainkatua. Botere faktikoen kontra ari zen beti kupida gabe, biolentoa zen, arma bat zen eta borroka, ordenu txikitzailea, emantzipazioa, sistemaren kondena, iraultza. Instituzioen eta dogmen eta konbentzioen kontra ari zen etengabe, libertatearen izenean eta gizonaren izenean, izen horretantxe giloti-

na muntatzeraino eta libertatearen aporietaraino hain zuzen. Arrazoimena radikalismoa zen. Urruti dago XVIII. mendea, baina ondo egongo da hori dena gogoratzea.

Gero, izan ere, beste mito denak txikitu zituztenean, bere mitoa jarri zuen haien lekuan tente, eta arrazoimena baretu zen, aginteratu zen, eta guziz "arrazoizkoa" bihurtu zen, onhest, modest, pausatu eta sosegatu. Ezarri zuen bere ordenu berria, burgesa ohi deritzona, eta gero denok isil-isilik eta bakean egon behar dugu. Protestak eta borrokak eta radikalismoak "irrazionalak" dira.

Hori dena ere aspaldi azaldu eta salatutakoa da. Arrazoimenaren eklipsea eta Ilustrazioaren bere kontrarioan bihurtze dialektikoa alegia. Baina bere karlismoa aldrebes jarri eta arrazional bihurtutako gure ilustratu beranta, arrazionalista burgesa, ez da enteratu oraindik, bere memoria historiko guziarekin. Gizonaren eta libertatearen borroka, zapalduen emantzipazioa sistemaren kondena irrazionalak dira orain. Halxe, bada, existentzialismoa ere irrazionala zen atzo. Eta Frankfurteko Eskola ere bai gerorago. Eta gizona arrazoimen instrumentalaren kateetatik askatu nahi


duten "radikalismo" eta "humanismo" guziak ere bai.

● Halere, arrazoimena gizonaren askapiderako dohaina eta ahalmena baldin bada, zein da hemen irrazionala eta zein arrazionala? Zein da lan benetan kritiko, emantzipaziozkoa, gizatasunaren izenekoa eta zanpatuen liberatzailea edonolako kateen haustailea, egiaz arrazionala, egiten ari dena? Ez gaitetzen geratu anekdotatxoetan: zenbateraino den arrazoizkoa ala gabezkoa trafiko letreoroak tatxatzea, edo axalekoago kontuak. Ez da oso sakona gure arrazoikotasun bedainkatu hau, forma eta estilo kontu horiek baino sakontasun haundiagorik ez badu.

Konparazio baterako: Voltaire arrazionalistak, esaterako, ez ote du askoz antz gehiago, inorekin izatekotan, gaurko "irrazionalista" portestalaria eta kritikoeekin, txit "irrazional" horiekin baino? Ez litzaiguke gaizki etorriko memoria historiko piska bat, ez, askatasun borrokaren historia luzean zein zer ari den perspektiba ez galtzeko: kateak hausten ala urreztatzen. Hor neurtu beharko bait dira, irrazionalismoak eta arrazionalismoak.

Irrazionalismo kritikoa abertzaletasunean

Frente a la racionalidad que siempre supone (pretende) el orden establecido, surge en Euskadi en torno a los años 50 un pensamiento "irracionalista" crítico que se enfrenta con el orden político tanto como con el religioso. Crítico asimismo frente a las tradiciones democristianas establecidas en el campo nacionalista vasco. Salvatore Mitxelena, Mirande, Krutwig Txillardegui, etc., influenciados unos por Nietzsche, otros por el existencialismo, por ambos en algún caso, han sido sus primeros representantes. Todos ellos se sitúan en el renacer de un nuevo nacionalismo por esos años. Pero estos escritores han vertido sus ideas en la bárbara lengua vasca y, como es costumbre, no han sido tomados en consideración por los historiadores, ni siquiera por los historiadores de ETA más recientes.



● Hasteko, abertzaleei beti tatxatu zaitela beren "irrazionaltasuna", esan beharko da. Arana Goirirekin hasita, beraz: batzuetan haren teneperamentu eta aiugarriagatik (Arana desekilibratu mental bat zela esanez), edo - jende akademiko finagoak - haren jakitatea, estudioak, etab., haren tesien zientifikotasuna azken finean, oso kaskarizat emanez. Solozabalek honela egiten du.

Gutxi asko, bi modu hauetara bil-tzen dira gero abertzaletasunari tradi-zionalki egin izan eta egiten zaizkion burlak: abertzaletasunak ez duela auzo-keria, txokoaren mina eta sentimentalismoa, beste oinarririk; edo abertza-letasuna kontradizioan dagoela teoria sozial (edo politiko, filosofiko...) haun-diekin, zientifikoeikin. Praksian: abertza-leei Estatu zentzua falta zaiela; solida-retasun zentzua, ikusmuga zabaltasuna, Basakumeok ez dute mundurik. Izpi-ritu probintzianoak dira. **Cavernicolas** eta **trogloditas**. Lizardik umorez "ar-petarrak" itzultzen zuena.

Maila honetan alde gutxi dago aber-tzale artean. PNV edo EE "arrazional" bezala agertarazi nahi izaten badigu ere noizean behin Madrilgo prentsa batek, zuzen-zuzen ala zeharka zinez airtzenago dena, horien arrazoizko-tasuna baino, "bestearen" irrazional-keria izaten da orduan ere. Nahikoa da istillutxo txiki bat horiekin, pren-tsa hark berak horiek ere derrefente txotxolo irrazionaltzat hartzeko. Eus-kal abertzaletasunaren irrazionalkeria dogma da: doktrina liberalean bezain tinko dagoena sekula santa guzirako doktrina sozialistan. Pontziotik Pilatora diferentzia gutxi Espainietan.

Honek denak badu agian zeriku-sirik euskaldun tontoaren tradizio espai-nol txit klasikoarekin ere.

● Baina beste fenomeno bat da 50. urteetan gertatu zaiguna. Abertzaleta-sunaren barruan gertatu da.

Tradizioak, inztituzio finkoek, sis-tema diktrinalek, botereak, beti errepre-sentatzen dute arrazoizkotasun modu bat, absurduena izanda ere: ordenu bat, printzipio batzuk, funtzionaketa bat de fakto (botererik faktikoena bera bait da), etab. Itxura eta ohitura beren alde dituzte.

Orain, denok dakigu nolakoak zi-ren 50. urte haiek. Bestetik, abertzale-tasun jeltzaleak, orduan zegoen baka-rak, bere arrazoizkotasuna zuen: kris-tau fedea, euskal jatoriasuna, betidani-ko euskal demokrazia, moral txukun

garbia, etab., Mirandek ironikoki "zin-tzotasun" hitzez laburbiltzen zuena. Guzi honi buruz, eta goiko beste hari

deren artikulu polemikoak, **Euskaldun-goaren etsaiak** eta **Herri saindu eta de-mokratikoaren parabola**, etc.



buruz hainbat gehiago, erreakzionatzen duen korrante bat sortzen da aipaturi-ko urteotan. Salbatorek, Mirandek, Txillardegik, Krutwigek, etab., bestela beren artean oso desberdinak izan arren, komuntasun inportante hori badute, oraindik zeinek ikertu badaukagu ere arlo hau.

Gizonaren, bizitzaren (bizi nahia-ren), askatasunaren defentsa radikal bat abiatzen dute edonolako sistema eta "ordenu" guzien kontra. Baina ez dar-mate beren borroka arrazoimenaren ize-nean, Ilustratuek beren garaian beza-la. Gizonaren esijentzia "irrazionaliste-tan" finkatzen dira. Egia bera, intui-zioaren bidez bilatzen dute, arrazoipi-dez eta logikaz baino gehiago. "Aris-toteles"en kontrakoa naizela esateak ez dit lotsarik batere ematen", erantzuten zion Txillardegik Orixeri. Eta Orixe haundiak "Leartzaren filosofia ustela ta merkea" salatzen zuen amorruren amorruruz: "beti bere urduritasunera biur-tzen baita, kakalardoa bere opiltxoetara bezala".

Seinalagarriak Salbatoreren **Una-muno ta Abendats** saioa, Bizi Nahi poema: Txillardegiren nobelak; Miran-

Dena ikertzeko dago. Hori dena egon denik ere ez da gaur aintzakotzat hartzen alde horretatik. Euskaraz pentsamendurik ez dagoelakoan ausaz. Gaur aztoratzen gaituen mila gorabehe-ra ulertzeko, ordea, biolentziaren ara-zotik hasita, argi asko emango ligue.

● Jakina, ez dira nahastu behar irra-zionalismoa (filosofikoa) eta irrazionala edo irrazionalkeria. Irrazionalistak, bai, badira: horregatik ez dira irrazionalak. Alderantziz, irrazionalismo guziz kriti-ko, "ilustratu" bat praktikatzen dute. Hau da, arrazoimen askatzailearen, kriti-koaren historian arrazoizkotasun berri bat errepresentatzen dute funtsean Egiazko Ilustraziorik bere garaian izan ez duen Euskal Herri honetako lehen Ilustrazio kritikoa seguru asko.

Beste batzuk, hauek baino libe-ralagoak eta "arrazionalagoak" zalantza gabe, XVIII. mendea ikertzeri dedika-tzen dira eta, iraganari begira, ikasi egiten dute Ilustrazioa. Geroari begira hauek praktikatu egin dute Ilustrazioa: irrazionalismo kritikoa. Arrazoizkotasun berri bat kreatu bait digute. ■